

Bozgorailua


Oihu egitean, ahots-kordek min har dezakete; oihurik egin gabe ozen entzun diezazuten, beraz, bozgorailu arrunt bat egin dezakezu etxean dituzun gauzekin.

Behar dituzu

- 5 litroko ur-botila bat
- 1,5 litroko ur-botila bat
- lastotxo bat
- plastilina pixka bat

Zer egin

1. Guraizeez bi botilak moztu; ipurdia kenduta nahikoa da
2. Haien tapoietan, zulo bana egin behar duzu. Tresnarik egokiena zulagailu elektrikoa da, baina, horrelakorik ez baduzu, saia zaitezke zuloa puntua egiteko orratzekin egiten; haien punta berotuz, errazago zulatuko dituzu plastikozko tapoiak. Edozein kasutan, zulagailu elektrikoa ala orratza erabili, heldu baten laguntza beharko duzu. **Zuloak ez du izan behar lastotxoaren diametroa baino handiagoa!**
3. Sartu lastotxoaren mutur bat tapoi batean, eta beste muturra beste tapoian. Zigilatu plastilinez.
4. Itxi bi botilak, eta kito! Prest duzu bozgorailua nahi duzuna lau haizetara zabaltzeko.





Komenigarria heldu
baten laguntza



Nola funtzionatzen du?

Botila txikian zerbait esan, eta soinuaren uhinek lastotxoan zehar bidaiatzen dute, botila handiraino. Botila handiak anplifikatu egiten du soinua, eta ozenago ateratzen da.